



Euskal Herriko Laborantza Ganbarako biltzar orokorreko kide eta langileen partez

Ez ustean harrapatu gaitu Mizel Bergouignan-en heriotzeak. Gure Biltzar Orokorreko kide zen, HEMEN-ren izenean Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu zenetik.

Oroitzapen ona atxikiko dugu Mizeletaz, gizon jarraikia, parte hartzailea, izpiritu argikoa. Gai guzietan bere iritzia ekartzen zuen. Bere bizia zinez aberatsa izan da. Hartu dituen engaiamenduek – izan arlo ekonomiko, sozial edo politikoetan – ez zuten mugarik eta bazakien hauen arteko loturak beharrezkoak zirela. Izpiritu horrekin jarraiki du gure Biltzar Orokorra. Bere ardura desberdinak indar kolektiboan oinarritzen ziren eta Euskal Herriko gizartearen zerbitzuko eman ditu urrats guziak. Memento ilun huntan, Biltzar Orokorreko kide eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarako langile guziak juntatzen gira dolumin bizienak helarazteko Juliette bere espos lagunari, bere haur eta familia guziari,

Ez adiorik Mizel eta milesker haundi bat Euskal Herriari ekarri eta egin dukanarendako.

Beñat Molimos

Euskal Herriko Laborantza Ganbara tient à présenter ses condoléances et à témoigner de sa solidarité à toute la famille de Mizel Bergouignan, un de nos membres de l'Assemblée Plénière.

Mizel s'est impliqué très naturellement dans l'aventure d'Euskal Herriko Laborantza Ganbara et dans son fonctionnement. Très attaché à développer des systèmes de production qui permettent aux paysans de vivre dignement de leur métier, il a contribué par son engagement militant à créer de la valeur ajoutée pour le territoire de sa vallée de Baigorri à travers la cave d'Irulegi. Il s'est aussi impliqué dans la défense de notre association lors des procès de 2009 et 2010 et ses avis très pertinents ont toujours été très appréciés lors de nos assemblées plénières. Par sa vision globale et responsable, c'est un militant qui a contribué à une prise de conscience au sein du milieu paysan, de l'importance du développement d'une économie dynamique pour le Pays Basque intérieur et plus largement pour la construction d'une identité politique en Iparralde.

Son dernier engagement courageux en tant qu'artisan de la Paix est aussi le témoignage d'une vision prospective pour l'Avenir du Pays Basque.

Le devoir accompli, repose en paix...

Francis Poineau

